

Historiaren pausoan

Vía de la Plata bidea egiten ari den erromesak hamaika kontraste aurkituko ditu, kilometroak adina ia (980). Hegotik Iparrerako ibilian, Mediterraneoko klimatik, klima atlantikora pasatuko da, mesetak eta artadiak atzean utzi, eta pagoak eta haritzak aurkituko ditu mendirik mendi. Eta historiaren arrastoak nonahi. Erromatarren galtzada zaharrak eramango du, eta halaxe begiztatuko du Pelayo ermitauak 812. urtean egin zuen aurkikuntza, Iria Flavia inguruko kastro batean: Santiago Nagusia Apostoluaren gorpuzkinak. Ordutik hasi ziren erromesak Donejakue bidea egiten, eta menderen mende, milioika erromes abiatu izan dira oinez, ikustera, ikastera, bilatzera eta bilatuak aurkitzera.

1. Giraldatik Obradoirora

Garai batean mezkita izan zen eraikina, egun, Sevillako katedrala da, Pizkunde garai-koa. Mezkita haren minaretea izan zenari bizkar emango dio Santiagoko Katedral erromani-ko, gotiko eta barrokoa jomuga hartuta abiatzen denak. Erromako zibilizazioa-ren historiak eta arteak lagun-duko du bidean: orduko hiriak, zirkuak, tenpluak, akue-duktoak, zubiak, arkuak eta gotorlekuak. Batzuk hondatu-ta daude, beste batzuek irau-nde, eta asko zaharberritu egin dituzte. Erromatarren antzinako hiri betikoan, Italican, topatuko ditu lehen hondakinak; Hispaniako Erroma joko du hurrena, Emerita Augusta hura, Merida, alegia. Caceres, Salamanca eta Zamora igaro, eta Asturica Augusta iritsia izango du (Urbs Magnifica edo Astorga). Handik aurrera, ez du izango lehengo biderik eta eguraldirik. Iparrorrazak Mendebaldea erakutsiko dio, eta Erdi Arora eramango dute erromatarren harriek.



1



2



2. Erromatar ingeniarien ondare aparta

Antonioren Ibilbidetik doa Vía de la Platako bidea. Meridatik Zamorara zihoan galtzada (XXIV.a) eta Zamoratik Astorgara zihoana (XXVI.a) hartuko lituzke bide hark. K.a.-ko lehen mendean egin zuten, erromatarren inbasio garaian, eta helburu militarra baino ez zuten (gerora garrantzi handia izan zuen merkataritza harremanetarako). Ez dago bide zuzenagorik Hegotik Iparrera joateko, eta horrek erakusten du erromatar ingeniariak zorrotasun handiz egiten zutela lan. Ipar-Hegoen arteko noranzkoan ez du aldaketa nabarmenik, ez angelu-bira deigarriarik ere, beharrezko den tokietan salbu, eta zeharka-zeharka doan arren, eta eremu zail eta askotarikoak igarotzen dituen arren, aurrera eta aurrera egiten du.

3. Arabiar jatorriko izena

'de Plata' (zilarra) izena nondik datorren jakitea ez da erraza, baina zilarrarekin, behintzat, ez du zerikusirik. Zenbaitek dio latinezko delapidata hitzetik datorrela ('harriz egindako galtzada' esan nahi du), baina José Manuel Roldán Hervás katedradunak besterik dio Iter Ab Emerita Asturicam lanean. Hark esaten du arabierazko BaLaTa hitzetik datorrela ('harlauzak jarri' esan nahi du): "Herriak entzun zuen arabierazko hitz arrotz haren hotsa, eta gaztelaniaz gehien hurbiltzen zitzaionaren bidetik bereganatu zuen; plata hitza zen hori".



3

4. Milia-zutabeak eta Caparrako arkuak

Distantziak neurtzeko, milia-zutabeak jartzen zituzten erromatarrek, 1.480 metrotik behin (mila pauso bikoitz neurtzen zuen erromatarren miliak). Zutabe zilindrikoak ziren, granitoz eginak, eta oraindik ere ikus daiteke bat edo beste. Zutabe bakoitzak zizelkatua darama zenbatgarraren milian dagoen, eta zein enperadorek eman zuen agindua bidea eraikitzeko edo moldatzeko. Baina Vía de la Platako ikurrik seinalatuena Caparrako Arkua da, tetracylum izenekoa (Erromaren handitasuna gurtzea eta oroitaraztea beste helbururik ez zuten).



4

5. Artelatz eta artadien artetik, baso atlantikora

Vía de la Platako natura ere handia da handia. Larre eta lautadak, artelatz eta arte zelaiak, errekaak eta ikusmira amaigabea aurrean. Horiek dira oinezkoaren bide-lagunak, eta bidea ez galtzeko, gezi horiak, lurrean marraztuak batzuk, harkaitzetan besteak, edo granitozko kuboetan bestela. Iparra erakusten dute beti, eta hantxe desagertzen dira, Iparrean. Bideak Mendebaldera egiten duenean, Santiagoren maskorrek hartzen dute gezien lekua, eta haiekin bat agertzen dira pago eta haritz basoak, mendiak eta aldapa luzeak, eta bide zoko bihurriak. Vía de la Platako bideak zehatz-mehatz ekarri gaitu behar zuen lekura. Atzean geratu da erromatarren garaia, eta iraganeko denboretan barrena, etorkizunera heldu gara. ★



5

